## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Araugintzako Foru Dekretuak*

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**328**

**Hutsen zuzenketa, azaroaren 21eko 73/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako "Fundación Alava Vive Deporte" (ALVIDE) fundazioaren estatutuen 15. artikulua aldatzen duen abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 79/2996 Foru Dekretua dela-eta Arabako Foru Aldundiak argitaratutako iragarkian eta laburpenean egindakoena.**

Azaroaren 21eko 73/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako "Fundación Alava Vive Deporte" (ALVIDE) fundazioaren estatutuen 15. artikulua aldatzen duen abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 79/2996 Foru Dekretua dela-eta Arabako Foru Aldundiak argitaratutako iragarkian eta laburpenean, ALHAOren 6 zenbakian, 2007ko urtarrilaren 15ean argitaratutakoetan, hutsak egin zirenez gero, zuzendu egiten dira ondoren:

Aldizkariaren aurkibidean, I. atalean (ARABAKO FORU ALDUNDIA), Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak eta iragarkiaren izenburuan ondokoa dioen lekuan:

"79/2006 Foru Dekretua, abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena, azaroaren 21eko 72/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako "Fundación Álava Vive Deporte" (ALVIDE) fundazioaren estatutuen 15. artikulua aldatzen duena."

Honakoa esan behar du:

"79/2006 Foru Dekretua, abenduaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena, azaroaren 21eko 73/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako "Fundación Álava Vive Deporte" (ALVIDE) fundazioaren estatutuen 15. artikulua aldatzen duena."

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urtarrilaren 23a.– Administrazio Kudeaketa Zerbitzuaren burua, EMILIO ORTIZ PALACIOS

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**690**

**54/2007 FORU AGINDUA, urtarrilaren 31koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, 110 eta 111 ereduak onartzen dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenei eta konturako sarrerei buruzkoak. Lanaren etekinen, zenbait jarduera ekonomikoren eta sarien gainekoa da zerga.**

82/2006 Foru Dekretuak, abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegiaren 97. eta 104 artikuluak aldatu zituen. Bertan, zenbait enpresa-jardueraren etekinak sartzen ziren, atxikipenei eta konturako sarrerei lotutakoak.

Beraz, beharrezkoa da otsailaren 17ko 283/95 Foru Aginduaren bidez onartutako aitorpen-likidazioari buruzko 110 eta 111 ereduak aldatzea, zenbatespen objektiboko jarduera ekonomikoen atala sartzeko. Bertan, zenbait enpresa-jardueraren kontraprestazioen etekinei buruzko atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu behar dira, horien etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez ezarri bada.

Horren ondorioz, eta 111/2001 Foru Dekretuaren 121-5 artikuluak jasotzen duen gaikuntza erabiliz (foru dekretu horretan onartu



## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales Normativos*

### DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

**328**

**Corrección de erratas en el sumario y encabezamiento del anuncio de la Diputación Foral de Álava, relativo al Decreto Foral 79/2996, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que modifica el artículo 15 de los Estatutos de la "Fundación Alava Vive Deporte" (ALVIDE), aprobados por Decreto Foral 73/2006, de 21 de noviembre**

Advertidas erratas en el sumario y encabezamiento del anuncio de la Diputación Foral de Álava, relativo al Decreto Foral 79/2006, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que modifica el artículo 15 de los Estatutos de la "Fundación Álava vive Deporte" (ALVIDE), aprobados por Decreto Foral 73/2006, de 21 de noviembre, publicado en el número 6 del B.O.T.H.A., de fecha 15 de enero de 2007, se procede a efectuar la oportuna rectificación:

Donde dice en el sumario de la Sección I DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA. Disposiciones y Resoluciones Administrativas y encabezamiento del anuncio:

"Decreto Foral 79/2006, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que modifica el artículo 15 de los Estatutos de la "Fundación Álava vive Deporte" (ALVIDE), aprobados por Decreto Foral 72/2006, de 21 de noviembre"

Debe decir:

"Decreto Foral 79/2006, del Consejo de Diputados de 19 de diciembre, que modifica el artículo 15 de los Estatutos de la "Fundación Álava vive Deporte" (ALVIDE), aprobados por Decreto Foral 73/2006, de 21 de noviembre".

Vitoria-Gasteiz, a 23 de enero de 2007.– EL Jefe del Servicio de Gestión Administrativa, EMILIO ORTIZ PALACIOS

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**690**

**ORDEN FORAL 54/2007 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 31 de enero, por la que se aprueban los modelos 110 y 111 de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sobre los rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas y premios.**

El Decreto Foral 82/2006, del Consejo de Diputados de 28 de diciembre, ha modificado los artículos 97 y 104 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, incluyendo los rendimientos de determinadas actividades empresariales entre las rentas sujetas a retención e ingreso a cuenta.

Por tanto, es necesario modificar los modelos 110 y 111 de declaración-liquidación, aprobados por la Orden Foral 283/95, de 17 de febrero, con objeto de incorporar el apartado de actividades económicas en estimación objetiva, en el que deberán declararse las retenciones e ingresos a cuenta correspondientes a rendimientos que sean contraprestación de determinadas actividades empresariales, cuando el rendimiento neto de las mismas se determine por el método de estimación objetiva.

En consecuencia, y haciendo uso de la habilitación contenida en el artículo 121-5 del Decreto Foral 111/2001 por el que se aprobó el

zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegiaren testu bateratua), honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- 110 eredua onartzea.

Bat.- 110 eredua onartzen da. Hona hemen izenburua: "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Lanaren etekinak, zenbait jarduera ekonomikorenak eta sarienak". Hiruhileko aitorpen-likidazioa.

Foru agindu honen eranskin gisa agertzen den eredu horrek bi ale dauzka: bat, administrazioarentzat; bestea, aitortzailearentzat.

Bi.- 110 eredua atxikitzaileek erabili behar dute, bai eta errentak direla eta kontuan dirua sartu behar dutenak ere; hortik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegiaren 71. artikuluaren 3.1 atalean jasotako baldintzak betetzen dituztenak (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartu zen zerga hori).

Bigarren.- 111 eredua onartzea.

Bat.- 111 eredua onartzen da. Hona hemen izenburua: "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Lanaren etekinak, zenbait jarduera ekonomikorenak eta sarienak. Enpresa handiak". Hileko aitorpen-likidazioa.

Foru agindu honen eranskin gisa agertzen den eredu horrek bi ale dauzka: bat, administrazioarentzat; bestea, aitortzailearentzat.

Bi.- 111 eredua enpresa handien multzoan sartzen diren atxikitzaileek eta kontuan dirua sartu behar dutenek erabili behar dute, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegiaren 71. artikuluaren 3.1 atalean jasotako baldintzak betetzen badituzte.

Hirugarren.- 110 eta 111 ereduak aurkezteko epea.

Bat.- 110 eredua aurkeztea, bai eta zenbatekoa Foru Aldundian sartzea ere, apirileko, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egunetan egingo da, urteko lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako atxikitako eta konturako sarrerei buruzko kopuruei dagokienez.

Bi.- 111 eredua aurkeztea, bai eta zenbatekoa Foru Aldundian sartzea ere, hilabete bakoitzeko lehenengo hogeita bost egunetan egingo da, aurreko hilekoaren likidazioaren atxikitako eta konturako sarrerei buruzko kopuruei dagokienez. Salbuespen gisa, uztailari dagokion aitorpena urte bereko abuztuaren 1etik irailaren 10era bitartean aurkeztuko da, biak barne.

Hiru.- Epearen mugaeguna jaia bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epe hori.

Laugarren.- 110 eta 111 ereduak aurkezteko tokia.

Bat.- 110 eta 111 ereduen aitorpen-likidazioak honako toki hauetako edozeinetan aurkez daitezke:

A) Aitorpenen emaitza ordaintzekoa denean:

1.- Otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, entitate laguntzailetzat hartutako bankuetan edo aurrezki kutxetan.

Erakunde kolaboratzaileak emango duen agiriak aurkezpen eta ordainketaren agiriaren balioa izango du.

2.- Posta arruntez edo zertifikatuz, Arabako Foru Aldundiaren izenean jarriz bankuko transferentziaren edo posta-igorpenaren ordezkagiriaren fotokopia; aitorpenaren originala ere bidali behar da (inprimaki ofizialak erabili badira), edo aitorpena agertzen den paper inprimatua (aitorpena egiteko, Laguntza programa erabili bada).

B) Aitorpenen emaitza jasotzekoa denean:

1.- Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

2.- Posta arruntez edo zertifikatuz, aitorpenaren originala edo aitorpena agertzen duen paper inprimatuarekin batera.

texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 110.

Uno.- Se aprueba el modelo 110 "Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Retenciones e ingresos a cuenta. Rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas y premios". Declaración-liquidación trimestral.

Dicho modelo, que figura como anexo de la presente Orden Foral, consta de dos ejemplares: un ejemplar para la Administración y un ejemplar para el declarante.

Dos.- El modelo 110 deberá ser utilizado por los retenedores y obligados a ingresar a cuenta por razón de las rentas a que el mismo se refiere, a excepción de aquéllos en los que concurran las circunstancias a que se refiere el apartado 3.1º del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por el Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril.

Segundo.- Aprobación del modelo 111.

Uno.- Se aprueba el modelo 111 "Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Retenciones e ingresos a cuenta. Rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas y premios. Grandes Empresas. Declaración-liquidación mensual.

Dicho modelo que figura como anexo de la presente Orden Foral, consta de dos ejemplares: un ejemplar para la Administración y un ejemplar para el declarante.

Dos.- El modelo 111 deberá ser utilizado por los retenedores y obligados a ingresar a cuenta que tengan la consideración de grandes empresas, por concurrir las circunstancias a que se refiere el apartado 3.1º del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por el Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril.

Tercero.- Plazo de presentación e ingreso de los modelos 110 y 111.

Uno.- La presentación del modelo 110, así como, en su caso, el ingreso de su importe en la Diputación Foral, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que proceda realizar correspondientes al primero, segundo, tercero y cuarto trimestre del año natural, respectivamente.

Dos.- La presentación del modelo 111, así como, en su caso, el ingreso de su importe en la Diputación Foral, se efectuará en los veinticinco días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que proceda realizar correspondientes al mes inmediato anterior. Por excepción, la declaración correspondiente al mes de julio se presentará en el plazo comprendido entre los días 1 de agosto y 10 de septiembre inmediato posteriores, ambos inclusive.

Tres.- Los vencimientos de plazo que coinciden en día festivo se entenderán trasladados al primer día hábil inmediato siguiente.

Cuarto.- Lugar de presentación de los modelos 110 y 111.

Uno.- Las declaraciones-liquidaciones modelo 110 y 111 podrán presentarse en cualquiera de los siguientes lugares:

A) Declaraciones con resultado a ingresar:

1.- En Bancos o Cajas de Ahorro que tengan la condición de Entidad Colaboradora según lo dispuesto en el Decreto Foral 26/1996, de 27 de febrero.

El pago en la Entidad Colaboradora servirá como resguardo de presentación y pago.

2.- Por Correo Ordinario o certificado, acompañando fotocopia del resguardo de la correspondiente transferencia bancaria o giro postal a favor de la Diputación Foral de Álava, remitiéndose también el original de la declaración (caso de utilizarse los impresos oficiales) o el papel impreso en el que obre la misma (caso de utilizarse para su confección el Programa de Ayuda).

B) Declaraciones negativas:

1.- En las oficinas de la Diputación Foral de Álava.

2.- Por correo ordinario o certificado, incluyendo el original de la declaración o el papel impreso en el que obre la misma.

Bi.- Aurreko “Bat” atalean ezarritakoa ez da aplikatuko Interneten bidez bidalitako aitorpen-likidazioetan. Aitorpen horiek “diputaciondigital” atariaren bitartez bidaliko dira, emaitza edozein dela ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, azken xedapen bakarrean ezarritakoarekin bat etorriz, indargabe geratzen da otsailaren 17ko 283/1995 Foru Agindua. Bertan onartu ziren 110 eta 111 ereduak, hau da, “Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrera. Lanaren etekinak, lanbide jarduerenak, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerenak eta sarienak”, eta “Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Atxikipenak eta konturako sarrerak. Lanaren etekinak, lanbide jarduerenak, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerenak eta sarienak. Enpresa handiak”, hurrenez hurren.

Era berean, indargabe geratzen dira urriaren 18ko 673/2001 Foru Aginduan jasotzen diren 110 eta 111 ereduei buruzko erreferentzia guztiak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta eragina izango du lehenengo hiruhilekoaren atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez, edo, bestela, urtarrilekoari (biak 2007koak) eta hurrengoei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urtarrilaren 31.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea.– Ogasun zuzendaria, Francisco J. Arrazola Arrien.

Dos.- Lo dispuesto en el apartado Uno anterior no será de aplicación a las declaraciones-liquidaciones que sean enviadas vía Internet. Estas declaraciones se remitirán, independientemente de cual sea su resultado, a través del portal “diputaciondigital”.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir del momento en que la presente Orden Foral surta sus efectos, de acuerdo con lo establecido en la disposición final única de la misma, queda derogada la Orden Foral 283/1995, de 17 de febrero, por la que se aprueban los modelos 110 “Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Retenciones e ingresos a cuenta. Rendimientos de trabajo, de actividades profesionales, de actividades agrícolas y ganaderas y premios” y 111 “Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Retenciones e ingresos a cuenta. Rendimientos del trabajo, de actividades profesionales, de actividades agrícolas y ganaderas y premios”. Grandes empresas.

Así mismo, quedan derogadas todas las referencias a los modelos 110 y 111 contenidas en la Orden Foral 673, de 18 de octubre de 2001.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos respecto de las declaraciones de retenciones e ingresos a cuenta que correspondan al primer trimestre o, en su caso, al mes de enero, ambos de 2007, y siguientes.

Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 2007.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea.– Director de Hacienda, Francisco J. Arrazola Arrien.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila / Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ATXIKIPENAK
## *RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FISICAS*
### LANEKO, ZENBAIT EKONOMIA JARDUERATAKO ETA SARIETAKO ETEKINAK
### *RENDIMIENTOS DEL TRABAJO, DE DETERMINADAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y PREMIOS*

**110**

IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO ESPAZIOA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**HIRUHILEKO AITORPEN LIKIDAZIOA**
**DECLARACION-LIQUIDACION TRIMESTRAL**

EKITALDIA / *EJERCICIO*

EPEALDIA / *PERIODO* T

| AZALPENA *CONCEPTO* | HARTZAILE KOPURUA *NUMERO PERCEPTORES* | HARTUTAKO KOPURUAK *IMPORTE PERCEPCIONES* | ATXIKIPENAK ETA KONTURA EGINDAKO SARRERAK *RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA* |
|---|---|---|---|
| **LANA / *TRABAJO*** | | | |
| Arabako Lurralde Historikoan egindako lanetik edo zerbitzuetatik lortutako etekinak *Rendimientos procedentes del trabajo o servicios que se presten en el Territorio Histórico de Alava* | 50 | 60 | 70 |
| Pentsioak *Pensiones* | 51 | 61 | 71 |
| Bere egoitza fiskala Araban daukaten entitateen Administrazio Kontseiluaren edo hauen ordezko Junten kideen ordainsariak *Retribuciones de los miembros del Consejo de Administración y Juntas que hagan sus veces de entidades con domicilio fiscal en Alava* | 52 | 62 | 72 |
| Zerga eragiketen zenbatekoaren proportzioan ordaintzen duten enpresa edo entitateetan, aurreko lerroaldean aipatzen diren pertsonen ordainsariak (eragiketen zenbatekoa aplikatu eta gero) *Retribuciones de las personas a que se refiere el apartado anterior de empresas o entidades que tributan en proporción al volumen de operaciones (previa aplicación del volumen de operaciones)* | 53 | 63 | 73 |
| **LANBIDE JARDUERAK / *ACTIVIDADES PROFESIONALES*** | | | |
| Lanbide kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak *Rendimientos satisfechos por contraprestaciones profesionales* | 54 | 64 | 74 |
| **ZENBATESPEN OBJEKTIBOKO JARDUERA EKONOMIKOAK -ZEINU, INDIZE EDO MODULUEN MODALITATEA / *ACTIVIDADES ECONÓMICAS EN EO, MODALIDAD SIGNOS, ÍNDICES O MÓDULOS*** | | | |
| Zenbatespen objektiboko jarduera ekonomikoen etekinak -zeinu, indize edo moduluen modalitatea *Rendimientos de actividades económicas en estimación objetiva, modalidad signos, índices o módulos* | 58 | 68 | 78 |
| **NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA BASOGINTZA JARDUERAK / *ACTIV. AGRICOLAS, GANADERAS Y FORESTALES*** | | | |
| Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak *Rendimientos satisfechos por contraprestaciones de actividades agrícolas, ganaderas y forestales* | 55 | 65 | 75 |
| **SARIAK / *PREMIOS*** | | | |
| Sariak (eskudiruz eta gauzak) *Premios satisfechos (en metálico y en especie)* | 56 | 66 | 76 |
| **GAUZAZKO ORDAINSARIAK ETA BESTE BATZUK / *RETRIBUCIONES EN ESPECIE Y OTRAS*** | | | |
| Gauzazko ordainsariak eta beste batzuk, sariei dagozkienak izan ezik *Retribuciones en especie y otras, excepto las correspondientes a Premios* | 57 | 67 | 77 |
| Guztira *Totales* | 80 | 81 | 82 |
| | | | 83 |
| Luzapen-errekargua *Recargo Prórroga* | | | 84 |
| Berandutza-korrituak *Intereses de Demora* | | | 85 |
| Sartu beharreko zerga zorra *Deuda Tributaria a ingresar* | | | 87 |

OHARRA: Adierazitako ekitaldian eta epealdian atxikipenik egin ez denean, beti ere aitorpen negatiboa aurkeztu beharko da.

*NOTA: Cuando no se hubiesen producido retenciones en el ejercicio y periodo consignado, deberá, en todo caso, presentarse declaración negativa.*

Data / *Fecha*

ATXIKITZAILEA / *RETENEDOR*

SARRERA FROGAGIRIA
*JUSTIFICANTE DE INGRESO*

ORDAIN GUTUNA / *CARTA DE PAGO*

| Zigilua eta sinadura *Sello y Firma* | Entitatearen Gakoa *Clave Entidad* | Data *Fecha* | Zenbatekoa *Importe* |
|---|---|---|---|

RE. 07/06

P.S.N. / *P.V.P.* / 0,12 €

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ATXIKIPENAK
# *RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FISICAS*

**LANEKO, ZENBAIT EKONOMIA JARDUERATAKO ETA SARIETAKO ETEKINAK**

***RENDIMIENTOS DEL TRABAJO, DE DETERMINADAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y PREMIOS.***

**ENPRESA HANDIAK / *GRANDES EMPRESAS***

**111**

IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO ESPAZIOA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**HILEROKO AITORPEN LIKIDAZIOA**
***DECLARACION-LIQUIDACION MENSUAL***

EKITALDIA / *EJERCICIO*

EPEALDIA / *PERIODO*

| AZALPENA<br>*CONCEPTO* | HARTZAILE KOPURUA<br>*NUMERO PERCEPTORES* | HARTUTAKO KOPURUAK<br>*IMPORTE PERCEPCIONES* | ATXIKIPENAK ETA KONTURA EGINDAKO SARRERAK<br>*RETENCIONES E INGRESOS A CUENTA* |
|---|---|---|---|
| **LANA / *TRABAJO*** | | | |
| Arabako Lurralde Historikoan egindako lanetik edo zerbitzuetatik lortutako etekinak<br>*Rendimientos procedentes del trabajo o servicios que se presten en el Territorio Histórico de Alava* | 50 | 60 | 70 |
| Pentsioak<br>*Pensiones* | 51 | 61 | 71 |
| Bere egoitza fiskala Araban daukaten entitateen Administrazio Kontseiluaren edo hauen ordezko Junten kideen ordainsariak<br>*Retribuciones de los miembros del Consejo de Administración y Juntas que hagan sus veces de entidades con domicilio fiscal en Alava* | 52 | 62 | 72 |
| Zerga eragiketen zenbatekoaren proportzioan ordaintzen duten enpresa edo entitateetan, aurreko lerroaldean aipatzen diren pertsonen ordainsariak (eragiketen zenbatekoa aplikatu eta gero)<br>*Retribuciones de las personas a que se refiere el apartado anterior de empresas o entidades que tributan en proporción al volumen de operaciones (previa aplicación del volumen de operaciones)* | 53 | 63 | 73 |
| **LANBIDE JARDUERAK / *ACTIVIDADES PROFESIONALES*** | | | |
| Lanbide kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak<br>*Rendimientos satisfechos por contraprestaciones profesionales* | 54 | 64 | 74 |
| **ZENBATESPEN OBJEKTIBOKO JARDUERA EKONOMIKOAK -ZEINU, INDIZE EDO MODULUEN MODALITATEA / *ACTIVIDADES ECONÓMICAS EN EO, MODALIDAD SIGNOS, ÍNDICES O MÓDULOS*** | | | |
| Zenbatespen objektiboko jarduera ekonomikoen etekinak -zeinu, indize edo moduluen modalitatea<br>*Rendimientos de actividades económicas en estimación objetiva, modalidad signos, índices o módulos* | 58 | 68 | 78 |
| **NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA BASOGINTZA JARDUERAK / *ACTIV. AGRICOLAS, GANADERAS Y FORESTALES*** | | | |
| Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak<br>*Rendimientos satisfechos por contraprestaciones de actividades agrícolas, ganaderas y forestales* | 55 | 65 | 75 |
| **SARIAK / *PREMIOS*** | | | |
| Sariak (eskudiruz eta gauzak)<br>*Premios satisfechos (en metálico y en especie)* | 56 | 66 | 76 |
| **GAUZAZKO ORDAINSARIAK ETA BESTE BATZUK / *RETRIBUCIONES EN ESPECIE Y OTRAS*** | | | |
| Gauzazko ordainsariak eta beste batzuk, sariei dagozkienak izan ezik<br>*Retribuciones en especie y otras, excepto las correspondientes a Premios* | 57 | 67 | 77 |
| Guztira<br>*Totales* | 80 | 81 | 82 |
| | | | 83 |
| Luzapen-errekargua<br>*Recargo Prórroga* | | | 84 |
| Berandutza-korrituak<br>*Intereses de Demora* | | | 85 |
| Sartu beharreko zerga zorra<br>*Deuda Tributaria a ingresar* | | | 87 |

OHARRA: Adierazitako ekitaldian eta epealdian atxikipenik egin ez denean, beti ere aitorpen negatiboa aurkeztu beharko da.

*NOTA: Cuando no se hubiesen producido retenciones en el ejercicio y periodo consignado, deberá, en todo caso, presentarse declaración negativa.*

Data / *Fecha*

ATXIKITZAILEA / *RETENEDOR*

ORDAIN GUTUNA / *CARTA DE PAGO*

SARRERA FROGAGIRIA
*JUSTIFICANTE DE INGRESO*

| Zigilua eta sinadura<br>*Sello y Firma* | Entitatearen Gakoa<br>*Clave Entidad* | Data<br>*Fecha* | Zenbatekoa<br>*Importe* |
|---|---|---|---|

RE. 07/05

P.S.N. / P.V.P. / 0,12 €

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

325

**28/2007 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa, Ollavarreko (Iruña Oka) SAU-2 sektoreko plan partzialaren espedientea behin betiko onartzen duena.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2006ko azaroaren 29an Iruña Okako Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 19930) jaso zen foru aldundian. Ofizio horren bidez, udalak Ollavarreko SAU-02ko plan partzialaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Alkatearen 2006ko irailaren 18ko ebazpen baten bidez plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hamabost egunez jendaurrean jartzea erabaki zen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (120 zenbakia. 2006ko urriaren 18a), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2006ko irailaren 22a) eta udal iragarki taulan.

B) Espedientea jendaurrean egon zen bitartean hiru alegazio aurkeztu ziren, horietako bi ezetsi eta bestea onetsi egin zituen udal batzordeak, plan partziala idatzi zuenak haiei buruz egindako txostena irakurri ondoren. Horiek horrela, udalak, 2006ko azaroaren 14ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 9/2005 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman edo ez Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

OINARRIAK

Lehenengoa. Agiriak Ollavarreko herriko SAU-02 sektoreko antolamendua garatzen du. Garatu ere sektore horretan indarrean dagoen eta udal ordezko arauen proiektu aldatuaren ondorio den hiri antolamenduaren arabera. Proiektu aldatu hori ekainaren 8ko 486/2000 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko.

Bigarrena. Proiektuko determinazioak udal hirigintza antolamenduan xedatutakoak betetzen ditu, baita hirigintza planeamenduaren arautegian xedatutakoak ere, salbu eta ondorengoetan.

Hirugarrena. Barruko bide sarea.

Ondasun Hirigintza Planeamenduaren Arautegiak 52. artikuluan Sektore barruko bide sarearen ezaugarriak, nondik norakoa eta bide sare orokorrarekiko loturak xedatzen ditu. Era berean, bidegurutzeetan eta norabide aldeketetan sestrak zehaztuko dira, ez, ordea sestra kotak.

Bi zaku hondo daudenez, ibilgailuak bertatik itzuli ahal izatea ahalbidetu behar da, beraz, zaku hondo horien tamaina egokia izango da ibilgailuen –anbulantziak, suhiltzaileen autoak eta abar– bira ahalbidetzeko. Bestalde, aintzat hartu behar da suhiltzaileen autoeskailera birakariaren gutxieneko erradioa, gutxienez, 9 metrokoa dela. Aurkeztutako dokumentuan jasotako erradioa, ostera, begi bistakoa da ez dela nahikoa; beraz, aldatu egin beharko da.

Mugikortasun urritua duten pertsonentzako eta elbarrientzako aparkalekuak Planeamendu Arautegiaren Eranskinaren 7.c artikuluan xedatzen direnak baino txikiagoak dira.

Laugarrena. Ekonomi eta finanatza azterlana.

«45.1.h) artikuluak arautzen du plan partzialak urbanizazio lanak egitea ebaluatu behar duela eta 55.2 artikuluak, gutxienez, zer lan eta zerbitzu ebaluatu behar diren.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

325

**ORDEN FORAL 28/2007, de 22 de enero, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector SAU-02 en Ollávarre (Iruña de Oca).**

ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 29 de noviembre de 2006 y número de registro de entrada 19930 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Iruña de Oca remitiendo el expediente del Plan Parcial SAU-02 de Ollávarre con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) Por Resolución del Alcalde de fecha 18 de septiembre de 2006, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de quince días, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 120, de 18 de octubre de 2006, en el periódico "Diario de Noticias de Álava" de 22 de septiembre de 2006 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Dentro del plazo de exposición pública fueron presentadas tres alegaciones que, previamente informadas por el redactor del Plan Parcial, fueron resueltas por la Comisión Municipal de 9 de Noviembre de 2006, desestimando 2 de ellas y estimando la restante y procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 14 de noviembre de 2006, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 9/2005, de 1 de marzo, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde a la Diputada titular del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

FUNDAMENTOS

Primero. El documento desarrolla la ordenación del Sector SAU-02 del núcleo de Ollávarre según la Ordenación Urbana vigente en dicho ámbito y resultante del Proyecto de Modificación de las Normas Subsidiarias Municipales en el mismo, aprobado definitivamente por Orden Foral 486 de 8 de junio de 2000.

Segundo. Sus determinaciones cumplen lo dispuesto en dicha Ordenación Urbana Municipal, así como en el Reglamento de Planeamiento Urbanístico, con las excepciones que se señalan a continuación.

Tercero. En relación con la red viaria interior

El art. 52 del R.P.U. indica que se determinarán el trazado y características de la red de comunicaciones propias del Sector y su conexión con el sistema general de comunicaciones, determinándose las rasantes definitivas al menos en los puntos de cruce y en los cambios de dirección. Sin embargo, no se determinan dichas cotas de rasantes.

Al existir dos fondos de saco, se ha de permitir el normal regreso de los vehículos desde los mismos, por lo que dichos fondos de saco han de tener las dimensiones adecuadas para permitir el giro de vehículos, tales como ambulancia, coches de bomberos, etc. En este orden de cosas, deberá tenerse en cuenta que el radio de giro de una autoescalera giratoria de bomberos es de 9 m. como mínimo, mientras que en el documento presentado la solución dada en el espacio situado junto a las viviendas de protección pública es, a todas luces, insuficiente, por lo que habrá de reformarse.

Las plazas de aparcamiento para personas con movilidad reducida o minusválidas, son de dimensiones inferiores a las que determina el art. 7.c del anexo al Reglamento de Planeamiento.

Cuarto. En relación con el Estudio Económico Financiero

El art. 45.1.h) determina que el Plan Parcial ha de evaluar la ejecución de las obras de urbanización y el 55.2 a qué obras y servicios ha de referirse como mínimo.